# EUSKERAZKO ZENBAKERA

GAYA

I.—Zenbakera-azalpena
II.—Idazlien usteak
III.—Uste espena

ARTX. E.I./S.E.V.
Saila
Agiri Zk.

I

**Zenbakera-azalpena**

1. Zenbakera, zenbaki edo kopuru guziak itz eta maŕa gutxiren bidez, itzez ta idatziz, agertzeko era baizik besterik ez da: alegia, zenbatzeko era.

2. Askotako zenbakerak sortu izan ditu gizonak: bostekoa, seikoa, amaŕekoa, amabikoa, ogeikoa, t. a. Eustrali ta Tasmani'ko eŕi bikoa ere erabiltzen omen dute. Colombia'ko betoyaŕak, oña-ŕitzat esku bateko beatzak aŕturikan, bostekoa sortu zuten, eta ogei adirazitzeko *lau esku* esaten dute; baita guaranitaŕak, ere, amaŕ adirazitzeko *bi esku* esaten omen dute. Amaŕekoa eŕi askotan zan; berau da oituena. Oñaŕitzat bi eskuetako beatzak aŕtuta sortu zan noski, Ovidio'k idatzi zuan bezela:

> *sed quia tot digiti per quos numerare solemus*
> *hic numerus magno tunc in honore fuit.*

Ogeikoa oraindikan eŕi askotan erabiltzen da. Mexico'ko mayaŕak eta Japon'go aindaŕak aspaldi sortu ta erabil̄i zuten; eta zenbakeŕa onen aztarnak beste eŕi askotan ere agiri dira, keltaŕ ta dinamar-kaŕen izkuntzetan eta.

Euskaldunen zenbakera ere geyenez ogeikoa da.

3. Esandako zenbakera oyetan maizenik erabil̄i oi diran maŕak bitzuek dira: eŕomaŕenak eta arabitaŕenak. Lenengoak, zenbaki guziak azaltzeko, zazpi izki abek baizik ze zituzten: *I, V, X, L, C, D, M*.

Arabitaŕak Europa'ra ekaŕitako amar zenbaki-maŕak abek dira 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 0. Abexek erabiltzen dira maizen; eŕomaŕenak